

BALOREZKO PROPOSAMENA

Odei Garro, Aimar López, Ekain Sein, Ander De Diego eta Udane Ibarguenek osatzen dugu taldea.

Gure asmoa gazteen beharrak bilduko dituen aplikazio bat sortzea da; izan ere, gazteak orokorrean baztertuta daude, eta Covid 19-a dela eta egoera are gehiago okertu da. Aplikazio honi esker, gazteei aukera emango zaie hain funtsezkoak zaizkien beharren erantzunak eskura eduki ahal izateko.

Gure produktua erabiliko balukete bezeroek, haien gaztararorako beharrezkoa zaien informazio guztia erraz aurkitu ahal izango lukete, guztia plataforma digital batean bilduta egongo baita. Gainera, heldu bilakatzeko pausua emateko laguntza eskainiko die, zenbait erraztasunen bitartez. Bertan, adibidez, jarraian aipatutako sailak aurkitzeko aukera izango dute: lan, residentzia eta pisu eskaintzak, unibertsitateen eta gobernuaren beken inguruko informazioa, aisialdi eskaintzak... Gainera, foru bat izango du, ikasleen arteko komunikazioa sustatu eta ahalbidetuko duena, haien artean laguntzeko aukera eskainiz. Guzti hau lortzeko, honako balioak izango ditu gure plataforma digitalak:

Eskuragarritasuna. Doainik da, beraz, pertsona orok erabili ahal izango du. Honekin inor ez baztertzea lortuko dugu, ez ekonomikoki ez sozialki.

Erraztasuna. Plataforma edonork erabiltzeko moduan diseinatuta egongo da. Hots, ez da beharrezkoa izango gailu teknologikoak kudeatzeko trebetasun handirik edukitzea. Horrela, erabiltzaileek eroso eta astiro aurkitu ahal izango dute beharrezkoa zaiena.

Auzolana. Gizartearentzat onuragarria izango da; izan ere, alde batetik, ingurukoei laguntzeko aukera emango digu. Bestetik, inguruko ekintzak bultzatuko ditugu. Eta azkenik, denon laguntza beharko dugunez plataforma honek aurrera egin dezan, auzolanean jardungo dugula esan dezakegu.

Praktikotasuna. Gazteei beharrezkoa zaien informazio guztia plataforma bakar batean bilduta egongo denez, ez dute iturri ezberdinetan bilaka aritu beharko, gure proiektuaren helburuetako bat praktikotasun hau eskaintzea baita.